

# Roland Garros, tenisaren gainerik

HISTORIC WINGS



**Roland Garros (1888-1918)** abiazioko aitzindari eta gerrako pilotu izan zen, baina haren izena tenisarekin lotzen dugu.

SAINT-DENIS (REUNION UHARTEA), 1888KO URRIAREN 6A. Roland Garros jaio zen, frantziar abiazioko aitzindari nagusietakoa. Ikasketak Sailyln eta Parisen egin ondoren, 1909an monoplane bat gidatu zuen lehenengoan, eta hurrengo urtean hegazkin pilotu lizentzia eskuratu zuen.

Berehala markak hausten hasi zen. 1911n munduko altitude errekorra hautsi zuen (5.610 m), eta 1913ko irailaren 23an Mediterraneo itsasoa geldialdirik gabe zeharkatzen lehena izan zen, Frantziako hegoaldetik abiatu eta Tunisiaraino. Hurrengo urtean Lehen Mundu Gerrak eztanda egin zuen eta Garrosen abilezia baliatzea erabaki zuen frantziar armadak.

Roland Garrosek aireplanoentzako metrailadore sistema hobetu zuen, etsaiari modu eraginkorragoan erasotzea ahalbidetzen zuena. Eta hobekuntza hori guduan gauzatu zuen, alemaniar hegazkinen aurka hainbat garaipen lortuz. Baina 1918ko urriaren 5ean Ardenneko guduan bere hegazkina eraitsi zuten eta Roland Garros hil egin zen, 30 urte betetzeko egun bat eta gerra amaitzeko hilabete falta zela.

Abiaziari egindako ekarpenengatik, Reunion uharterko aireportuak Roland Garros du izena. Hala, pilotuaren izena bere pasioarekin lotuta geratuko zatekeen betiko, 1927an tenislari frantziarrek AEBei Davis Kopa irabazi izan ez baliote. Hurrengo urtean, errebantxa Frantziako lurretan jokatuko zen. Norgehiagokaren garrantzia medio, Frantziako gobernuak hiru hektarea eman zituzten Frantziako Tennis Federazioaren instalazio zaharren alboan estadio berria eraiki zezaten. Gobernuak doan eman zuen lur saila, eta trukean baldintza bakarra eskatu: estadioari guduan eroritako pilotu gaztearen izena jarriko zioten. Gaur egun, Roland Garros munduko lur zapalduko tenis torneorik garrantzitsuenak da.

Zenbait iturriren arabera, Roland Garros gaztea tenis-zalea zen, eta Parisen ikasle ibilitako garaian Federazioaren pistetan kirol horretan aritzen omen zen. Errugbia ere gustuko zuen eta Parisko Stade Français taldeko kidea izan zen. Kontuak kontu, haren izena beti egongo da gaztetako zaletasun haien eskutik, eta ez hotsandira eta heriotzara eraman zuen grinari lotuta. ■



## Arrastoak

### Samotraziako Garaipena diru eske

MARIA VALIENTE



PARISKO LOUVRE museoko pieza enblematikoenetakoa, *Samotraziako Garaipena*, zaharberritzen hasi dira. Lanak 2014ko ekainean amaitzea aurreikusten dute, baina lau milioi euroko aurrekontua osatzeko milioi bat falta dutenez, *crowdfunding* sistema-  
ra jotzea erabaki dute arduradunek.

[www.louvresamothrace.fr](http://www.louvresamothrace.fr) webgunean edonork egin dezake zaharberritze lanetan laguntzeko diru ekarpena (dagoeneko helburuaren %20tik gora lortu dute). Webguneak, gainera, zaharberritze lanen nondik norakoak xehetasunez jarraitzeko aukera ematen du. ■